Una de las actuaciones recogidas en este plan es la puesta en marcha de una estrategia de Ahorro y Eficiencia Energética en el conjunto de edificios municipales y alumbrado público, que requiere diversas herramientas operativas encaminadas a impulsar, gestionar, seguir y comunicar las medidas técnicas y sus resultados, de manera que se asegure el avance hacia la consecución de los objetivos establecidos.

Se está implantando un **nuevo Modelo de Gestión Energética Municipal**. El proyecto consiste en implantar un Sistema de Monitorización permanente del consumo energético y de gestión remota que estructure un nuevo Modelo de Gestión Energética en los Equipamientos Municipales. Los edificios con los que inicialmente se está trabajando son: Ayuntamiento, Frontón municipal, Torrebillela, Polideportivo y Legarda.

**Objetivos** que se quieren conseguir:

- Conocer al detalle la situación actual, en términos de consumo de energía implantando un sistema de monitorización de los edificios equipamientos municipal **con carácter permanente** y de gestión remota.
- Identificar y priorizar las actuaciones necesarias para fomentar el ahorro y eficiencia energética en dichos edificios e instalaciones.
- Control sobre el consumo energético: electricidad, gas,…
- Reducir el consumo energético al menos un 10% en los edificios municipales identificados en el proyecto.
- Verificar los ahorros logrados.
- Reducir las emisiones de CO2

Para ello, se está implantando un **software de contabilidad energética** para gestionar todas las facturas energéticas del ayuntamiento. Mediante esta se podrán conocer y tener a mano todas las condiciones de contratos de suministros, consumos, costes, mantenimientos,…

Además, se han realizado **auditorías energéticas** de todos los **edificios** señalados. Esto consiste en la realización de un diagnóstico que permite conocer la situación del edificio respecto al consumo energético. En él se identifican las medidas de Ahorro y eficiencia energética que se podrían implementar.

Se ha implantado también un **sistema de monitorización** para conocer con detalle la información sobre origen y características de los consumos energéticos (electricidad, gas, agua,..).



## Udal-eraikinetan aurreratzeko eta eraginkortasun energetikoa erabiltzeko estrategia

Administrazino publikoan energia aurreztea eredugarria da herritarrentzat; batetik, sentiberatzeko bidea da eta, bestetik, gastu publikoa zentzuzkoagoa egitea dakar. Ganera, energia aurrezteak ingurumenaren ganeko eragin negatiboa murriztea dakar eta aukerea emoten dau klima-aldaketaren kontrako borrokan laguntzeko eta osasungarritasun atmosferikoan aurrera egiteko.

Burutze bidean dagozan jardueretako bat Udal Eraikinen Energia Kudeatzeko Sistema barria da. Proiektua Monitorizazio Sistema bat ezartzean datza; sistema horrek kontsumo energetikoa eta kudeaketa kontrolatuko ditu, eta horretara udal ekipamenduaren kudeaketa eredu barriaren arabera egituratuko da. Hasikera baten ondokoak dira honetan sartuta dagozan Udal-eraikin eta instalazinoak: Udaletxea, Udal-frontoia, Torrebillela, Kiroldegia eta Legarda.

# Landaren eta Loren IX. Azoka eguna

Datorren apirilaren 18an Mungiako IX. Landaren eta Loren Azoka egingo da. Bertoko landarak, lore apaingarriak eta paisajerako balio dabenak egongo dira ikusgai eta erosgai ferian. Plaza bueltan, landaren eskaintza zabalaz ganera, nekazaritzako makineriaren ikusi eta erosteko aukerea bere egongo da. Azoka goizeko 10etatik hasita eguerdiko 14:30etara arte egongo da zabalik.

Ganera, aurton azokan parte hartzen daben produktore guztiek euren produktu bat emon egingo dabe. Feriaren amaieran lote ezbardinak zozketatuko dira azokan erosketak egin dabezan pertsonen artean.

Erakusketaz ganera, goizean zehar tailer ezbardinak antolatuko dira, bai umeentzat eta baita helduentzat bere. Tailerron bidez hainbat gauza ikasi ahal izango doguz: ongarria zelan egin geinkean geure etxean eta lorak zelan jagon; ganera, konpostajearen ganeko lantegi bat bere egingo da.



## Balkoi eta Leihoetako Loren II. Lehiaketaren aurkezpena

Landara Azoka egunean bertan, Mungiako Balkoi eta Leihoetako Loren II. Lehiaketa aurkeztuko da. Pasa dan urteko edizinoan parte-hartzaile asko egon ez zan arren, lehiaketako epaileek uriguneko kaleetatik paseatzean balkoi askoren edertasuna nabarmendu eben. Hori dala-eta, Udalak badaki mungiar askok apaintzen dabezala euren balkoiak eta horregatik animatu gura ditu herritar horreek guztiak lehiaketan izena emon daien.

Auzotarrak animatzeko eta agertu ahal diren zalantzak ebazteko, Iñigo Segurolak 12:30etatik hasita eta ordu pare batez, balkoi baten konposizio floristikoa zelan egiten dan eta epaimahaiak kontuan hartuko dituan irizpideak zeintzuk izango diran azalduko dau.

Parte hartu gura dabenek maiatzaren 8ra arte emon ahal izango dabe izena udaletxearen Harrera Bulegoan edo euren eskaera agendalocal@mungia.org helbide elektronikora bidalita.

Lehiaketaren oinarriak, eskariorriak, sariak eta abar Harrera Bulegoan zein www.mungia.org web gunean dagoz kontsultagarri.

Sariak –Mungiako dendetan erosketak egiteko opari-txekeak– San Pedro jaietako Baserritarren egunean emongo dira.

### Presentación del II Concurso de Flores en Balcones y Ventanas

El día de la Feria de Plantas, se hará también la presentación del II concurso de Flores en balcones y ventanas del casco urbano, para lo cual se contará con la participación de Iñigo Segurola. Este año desde el Ayuntamiento se anima a los vecinos y vecinas a participar, ya que el año pasado los jueces destacaron que había múltiples balcones dignos de mención y que sin embargo no participaron en el concurso. La solicitud de inscripción se puede realizar hasta el 8 de mayo. Las bases del concurso se pueden consultar en la página www.mungia.org o solicitándolas en Harrera Bulegoa.

# Plan Operativo para la Igualdad 2015

El Pleno Ordinario celebrado el pasado mes de marzo aprobó el Plan Operativo 2015 en el ámbito de la Igualdad de Oportunidades. Un Plan Operativo es un programa concreto de acción a corto plazo, cuya utilidad está en traducir la estrategia global en el día a día.

El plan, que prevé realizar 71 acciones por un Mungia más justo y solidario, está estructurado en 4 ejes principales de acción:




La **mejora de la gobernanza para la Igualdad**, que hace referencia a la eficacia, la calidad y la correcta intervención de los poderes públicos en este ámbito. Se creó una **Estructura Permanente para la Igualdad**, conformada por personas de todas las áreas y organismos municipales, así como por representantes del gobierno local, que durante este año recibirá formación en los ámbitos de la coeducación y de la violencia contra las mujeres. Además, las áreas de Secretaría y Behargintza recibirán una formación puntual sobre la elaboración de documentos con una redacción que se adapte al lenguaje inclusivo.

El segundo eje hace referencia al **empoderamiento de las mujeres** y **el cambio de valores**, es decir, aportar herramientas para aumentar la autoestima de las mujeres a la hora de adoptar decisiones en condiciones de Igualdad. Es necesario un cambio de los estereotipos o roles de género, y por ello trabajaremos un año más, principalmente en el ámbito de los centros educativos, el cambio de valores y modelos, educando así para la igualdad, con el fin de evitar que se sigan reproduciendo estereotipos de género y conductas discriminatorias.

La tercera base trata sobre la **organización social corresponsable.** La división de las tareas en nuestra sociedad ha estado tradicionalmente estructurada en función del sexo. Las actividades del ámbito público han sido consideradas histórica y estructuralmente masculinas y las del ámbito privado, es decir, labores y cuidados, han sido definidas como femeninas. Durante la industrialización, los hombres fueron considerados proveedores fundamentales, a cambio de un sueldo y las mujeres se responsabilizaron de las labores del hogar y de cuidados, sin valor económico. Las dificultades de conciliación son consecuencia directa de esta visión del trabajo que se ha convertido en un problema social.

El último eje es **la lucha contra la violencia hacia las mujeres**, una de las manifestaciones más graves de la desigualdad existente en la sociedad actual. El Plan recoge dos vías de acción. La primera trata sobre la sensibilización y prevención de la violencia, donde planteamos, entre otras, campañas dirigidas a la juventud para trabajar un "ligoteo saludable" estableciendo relaciones tolerantes y respetuosas y que en caso de ruptura, esta no sea violenta. La segunda se centrará en las medidas de atención a las víctimas. La violencia de género es la expresión de la relación de desigualdad entre hombres y mujeres que está basada en la supuesta superioridad de un sexo sobre otro. El silencio y la resignación no son respuesta, nunca deben serlo y por ello, desde los diversos servicios municipales se seguirá garantizando la protección y la atención integral a las víctimas.

## 2015eko Bardintasunerako Ekintza Plana

Joan dan martiko Ohiko Osoko Bilkuran Udalbatzak 2015eko Bardintasunerako Ekintza Plana onartu eban Aukera-Bardintasunaren esparruaren barruan. Plana 4 eragin ardatz nagusitan egituratuta dago eta berorren garapenerako 71 ekintza burutzea dago aurreikusita.

**Bardintasunerako gobernantzaren hobekuntza**. Hau botere publikoek eremu honetan daukien esku-hartze zuzenari, eraginkortasunari eta kalitateari lotuta dago.

Bigarren ardatza, **emakumeen ahalduntze eta balore aldaketen ganekoa** da, hau da, emakumeen autoestimua handitzeko erremintak emotea bardintasunetako egoeretan erabakiak hartu daiezan.

Hirugarren oinarria **antolaketa sozial erantzunkideari** buruzkoa da, izan bere, gure gizarteko lan-banaketa sexuaren arabera egituratuta egon da tradizinoz edota ohituraz.

Azken ardatza, **emakumeenganako bortizkeriaren kontrako borroka** da, hau da, gaur egungo gizartean dagoan desbardintasun erakusgarririk larrienetakoa. Eta alor honetan Planak lan egiteko bide bi ditu jasota: bata, sentiberatzea eta prebentzinoa; eta bestea, biktimentzako arreta eta laguntza.

# Martiak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna

## 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres

Con motivo del Día Internacional de la Mujer, el pueblo de Mungia se ha volcado en hacer un homenaje a las mujeres baserritarras. Para ello, miembros del ayuntamiento repartieron ramos de claveles a estas mujeres que además de llevar la casa, cuidan de las huertas y los animales. Después las asociaciones Diz-Diz y Marwa distribuyeron chocolate a los mungiarras. Más tarde, aproximadamente un centenar de mujeres se movieron al barrio de Larrauri para disfrutar de una comida popular y bailables.

Estas iniciativas tienen lugar dentro de una semana en la que se llevaron a cabo varias actividades relacionadas con la mujer y la igualdad como un espectáculo sobre las mujeres bertsolaris, quienes no han tenido mucha proyección dentro de su especialidad, o un teatro organizado por Diz-Diz, quienes año tras año, llenan el salón.

También se proyectaron los cortos realizados por vecinas de Mungia en Torrebillela y tras esto, los encargados de Servicios Sociales dieron claves sobre los temas que más interesan a las mujeres de Mungia. Estos y otros datos se han recogido al realizar el sondeo de opinión ¿Qué queremos las mujeres de Mungia?



Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko, Mungiak ekitaldi ezbardinak antolatu zituan egun horren bueltan.

Hasteko bertoko emakume baserritarrei omenaldia egin jaken. Horretarako, udaletxeko langileak barikuetako plazako postuetan lanean ibilten diran emakumeei krabelin-sortak banandu eutsiezan. Asko dira barikuro-barikuro Mungiako Andra Mari plazara datozan baserritarrak, euren salmenta postuetan kalidadezko bertoko produktuak eskaintzen.

Emakume baserritarrek, etxearen ardurea izateaz ganera, ortu eta ganaduen ardurea bere eukiten dabe. Behar gogorra hartzen dabe euren ganean. Hori guztia kontuan hartuta, orain dala hamar urte baino lehenagotik hasita, loren eskaintza xume hori egiten deutse Udalak, eta erakunde honek, ordainetan, esker ona irribarre ederrak jasoten ditu euren aldetik.

Horren ostean, Diz-Diz eta Marwa alkarteko kideek txokolatea banandu eben plaza inguruan egozan guztiei. Gero, eguerdi inguruan, ehun emakume inguru batu ziran alkarregaz bazkaltzeko Larrauriko auzoko jatetxe baten, eta bazkalostean, opari-zozketak eta dantzatzekoak izan ebezan.

Ekintza horreek, beste hainbat jardueragaz batera kokatu dira aste horren barruan; besteak beste, bertso-ikuskizun bat bere egon zan, eta horretan, bertsoen bitartez, emakumeek kultur arlo honetan bere jasan daben gutxiespena azaldu eben. Horren ganera, Diz-Dizek bere antzezlan bat antolatu eban, urtero legez, eta Olaldeko aretoa bete egin zan obra hori ikusteko.

Hurrengo eguenean, Mungiako emakume batzuek egindako laburmetraiak ikusteko aukera izan genduan Torrebillelan. Eta horren ostean, Gizarte Zerbitzuetako arduradunek gure herrian andren gaiari lotuta egindako inkesta baten emaitzak azaldu ebezan. Galdeketa horreen bitartez, emakumeei gehien interesaten jakezan gaiak eta ikastaro publikoak egiteko ondoen jatorkezan ordutegi eta formatuak eta beste hainbat datu jaso ziran.

# Mungiako Gizarte Kontseiluaren urteko lehen batzarra

Martiaren 23an, Gizarte Kontseiluak urteko lehen batzarra egin dau. Gizarte Kontseilua Udalak herritarren parte hartzea eta eretxia jasoteko eukan interestik sortu zan. Batzordea hiru hilabeterik behin batzen da eta helburua herritarrei eragin ahal deutsien gai sozialak lantzea da. Oraingoan, kasurako, AMAtxuSaria, Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatea, Mendetasunen VI. Plana, Ataxia de Friedreich ikertzen dauen proiektua, Rakel Mateoren "Objetivo Rio 2016" eta Osasun Astea jorratu ziran.

# AMAtxu Saria 2015 con la causa saharaui

El próximo domingo 3 de mayo se va a celebrar la decimotercera edición de AMAtxu Eguna en Landesa Plaza.

El pueblo de Mungia, a través del Premio AMAtxu, hace entrega de un premio cada primer domingo del mes de mayo, a personas o entidades que representan comportamientos que, sin buscar una recompensa, favorecen y ayudan a otras personas o grupos sociales. Este es un reconocimiento que no supone ninguna gratificación económica, pero que trata de hacer llegar el abrazo y cariño de todos los y las mungiarras a quienes lo merecen.



El Consejo Social, reunido el 23 de marzo, y posteriormente ratificado en el Pleno Municipal, ha decidido este año reconocer la labor de todas las familias que durante más de 15 años acogen en sus casas a niñas y niños saharauis para pasar el verano en nuestro municipio. A través de este programa, las familias de Mungialdea reciben en sus hogares, durante los meses de julio y agosto, a niñas y niños que viven en los campamentos para personas refugiadas de Tindouf. De esta manera se evita que estas chicas y chicos tengan que sufrir las altas temperaturas que se dan en el desierto en estos meses tan calurosos, a la vez que aprovechan su estancia en Euskadi para realizar chequeos médicos y, si es necesario, someterse a tratamientos. Durante estos meses de verano, la alimentación es mucho más completa que la que tienen en los campamentos y esto les aporta fuerza extra para regresar a sus hogares.

Conscientes de que nuestro pueblo es un pueblo solidario, y que existen más casos de acogida de manera altruista a personas de otros países, sirva el premio AMAtxu Saria 2015 para reconocer y alabar la solidaridad que han demostrado todas estas familias con el pueblo Saharaui a lo largo de tantos años.

### Aurtengo AMAtxu Saria Sahararen arazoagaz bat eginda

Martiaren 17an Andina Pereira de Brito, gure herrikidea zanaren hilketaren urteurrena bete da. Gure Udalak Andina gogoratzen jarraitzen dau, baita era horretako bortizkeria egoera latzak sufridu eta sufritzen dabezan emakume guztiak. Horregaitik, eta bere oroimenean, martiaren 17an Mungiako M krespoi moreaz eta lora zuriz jantzi zan.

# Andina Pereira, el pueblo de Mungia no te olvida

### Andina Pereira, Mungiako herriak ez zaitu ahazten

Martiaren 17an Andina Pereira de Brito, gure herrikidea zanaren hilketaren urteurrena bete da. Gure Udalak Andina gogoratzen jarraitzen dau, baita era horretako bortizkeria egoera latzak sufridu eta sufritzen dabezan emakume guztiak. Horregaitik, eta bere oroimenean, martiaren 17an Mungiako M krespoi moreaz eta lora zuriz jantzi zan.

El 17 de marzo se ha cumplido un año del asesinato de nuestra vecina Andina Pereira de Brito.

Un año después, nuestro municipio sigue recordando a Andina, a su familia y amistades, así como a todas aquellas mujeres que sufren y han sufrido estas intolerables situaciones de violencia, la consecuencia más grave del sistema patriarcal y un problema de primer orden.

Por ello, y en su recuerdo, el 17 de marzo la M de Mungia vistió un crespón morado y unas flores blancas que nos recordaron a quien fue nuestra vecina.



# OSASUN ASTEA celebra su undécima edición

## OSASUN ASTEAk bere hamaikagarren edizinoa ospatzen dau

Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatearen Adikzinoen Prebentzinorako zerbitzuak maiatzaren 26tik 29ra Osasun Astearen hamaikagarren edizinoa antolatuko dau.

26an "sustantzia bako" adikzinoen ganeko hitzaldiak eskainiko dira goizez eta arratsaldez Torrebillela Kultur Etxean. Hurrengo egunean, DBHko lehen mailako ikasleek tabakoaren kontrako "Kerik Gabeko Gelak" lehiaketako sariak jasoko dabez. Eguenean, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleei tabakoaren kontsumoaren inguruan eta larrialdi kasuetan egin behar danaren ganeko oinarrizko jarraibideen barri emongo jake. Azkenik, barikuan tabakoak eragiten dituan kalteez kontzientziatzeko lasterketa bat egingo da Matxin enparantzan.



El Servicio de Prevención de Adicciones de la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales ha organizado la undécima edición de la Osasun Astea o Semana de la Salud que se llevará a cabo entre los días 26 y 29 de mayo. Se trata de una iniciativa que comprende numerosas actividades informativas y de sensibilización sobre la importancia de adquirir y mantener hábitos de vida saludables.

Previo a la elaboración del V Plan de Adicciones de Mungialde, se ha realizado un análisis de la realidad, en el que, además de tratar el tema del consumo de alcohol y otras drogas, se ha querido tener un conocimiento más cercano de los hábitos de ocio de las personas jóvenes, haciendo especial hincapié en el uso de las redes sociales, los videojuegos, el juego online o las apuestas deportivas. Este análisis ha permitido observar prácticas que pueden llegar a ser de riesgo por su utilización en exceso, pudiendo generar la aparición de nuevas adicciones, denominadas "sin sustancia".

Ante esta realidad, la Jornada de este año quiere servir para compartir diversas experiencias y seguir avanzando hacia un mejor conocimiento de estas nuevas formas de dependencia. Para ello, el día 26 se contará con la presencia de especialistas de diversas áreas, que nos ofrecerán información sobre este tipo de adicciones. El encuentro se desarrollará por la mañana y por la tarde en Torrebillela Kultur Etxea.

Al día siguiente, miércoles 27, se celebrará la entrega de premios del III Concurso "Kerik Gabeko Gelak", un programa educativo para la prevención del tabaquismo entre el alumnado de primer ciclo de la ESO.

El jueves 28, el alumnado de 5º de primaria participará en talleres relacionados con la prevención del consumo de tabaco, así como en un cursillo de primeros auxilios organizado en colaboración con **Mungialdeko Gurutze Gorria.** En él, se les proporcionarán pautas básicas para saber cómo actuar en casos de emergencia. Esa misma tarde, en Alkartasuna Aretoa tendrá lugar una charla informativa organizada por **Alcohólicos Anónimos**, con el fin de proporcionar pautas para la detección y ayuda de personas que tengan problemas por consumos excesivos.

Para finalizar con la programación de Osasun Astea, el viernes 29, y en colaboración con el centro de Salud, se habilitará en Matxin enparantza un stand para informar y sensibilizar a la población sobre los beneficios de dejar el tabaco. Por la tarde y en el mismo lugar, tendrá lugar la clásica "Carrera sin tabaco", que este año celebra su decimotercera edición.

# Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitateak enpleguarako orientazino-zerbitzu barria ezarri dau



Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitateak hitzarmen bat sinatu dau Gaztaroa S.K.-gaz. Horren bidez, teknikari batek enplegurako orientazino-zerbitzu barria eskainiko dau. Prestazino hau Partzuergoaren lokal bitan egingo da (bata arreta indibidualerako eta bestea talde-lanetarako); hain zuzen bere, martiaren 9tik irailaren 30era arte garatuko da. Partzuergoa Gaztaroa Sartu Kooperatibagaz alkarlanean ibiliko da lehenago egon dan Auzolan programan egiten zan legez.

Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatean lan-merkatura sartzeko zailtasun handiagoa daukien personen aukerak handitzeko eta hobetzeko egiten da lan. Horretarako aukeratuko diran personak Partzuergoak eta Lanbide-Mungia-k aukeratuko ditu. Horretara, helburu hori lortzeko, hiru erakundeak alkarlan estua erabiliko dabe oinarrian, eta Behargintza udal-zerbitzua bere alkarlan honetan sartuta egongo da.

Ekimen honek enplegurako orientazino-zerbitzua garatu gura dau; besteak beste, hau egingo da:

- Lan-merkatuaren, enplegurako politika aktiboen eta karteran dagozan zerbitzu komun eta osagarrien eskaintzaren ganeko informazinoa erraztu.
- Langilearen profil eta diagnostiko pertsonalizatua landu, bere trebetasunak, gaitasunak, heziketa eta esperientzia zehaztuta.
- Aurrekoa kontuan hartuta, langilearentzako pertsonalizatutako bidea diseinatzea.

Hitzarmen honek orientazino-zerbitzuaren hobekuntza dakar; izan bere, horri esker kolektibo honetako pertsona gehiagoz arduratu ahal izango da.

## La Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales instaura un nuevo servicio de orientación para el empleo

La Mancomunidad de Servicios Sociales ha firmado un convenio con Gaztaroa S.K. con el cual una técnica está prestando servicio de orientación para el empleo. Esta prestación tiene lugar en dos locales, uno para atención individual y otro para acciones grupales, cedidos por la Mancomunidad, y se desarrolla desde el 9 de marzo hasta el 30 de septiembre.

El objetivo es mejorar la empleabilidad de las personas que tienen mayor dificultad para acceder al mercado laboral. Para ello, las derivaciones de las personas se realizan, tanto desde los Servicios Sociales de la Mancomunidad, como desde Lanbide-Mungia, para lo cual las tres entidades trabajarán en estrecha colaboración, incluyendo también al servicio municipal de empleo Behargintza.

Gracias a este convenio es posible dedicar más recursos a la atención del colectivo en situación de desventaja y favorecer su inserción al mundo laboral.

# Situación económica del Ayuntamiento a 1 de Enero de 2015

## 2015eko urtarrilaren 1ean Udalak daukan egoera ekonomikoa

Udalak saihesten jakin dau bai krisi ekonomikoa eta bai horrek ekarri dituan sarrera jaitsierak eta beharrizan igoerak bere, gehienbat gastu sozialen alorrean. Gaur egun administrazio saneatu eta prestatua daukagu, eta datozan urteak arlo ekonomikoan onak izatea espero dogu.

**Likidazinoa:** oraintsu onartu da 2014ko aurrekontuaren likidazinoa, eta hauxe da bertan aurkitu doguna: emaitza positiboa izan dala. Eta horri esker, gerakin nahiko ona daukagu diruzaintzan; hau da, datozan urteetan erabilgarri izango dogun diru kopurua, nahiz eta zati bat lehendik hartutako betebeharrei lotuta egon.

**Zorra:** Udaleko gobernuak legeldi honetan egin dauen lana zor barrietan ez sartzekoa eta dagoan zorra apurka-apurka kentzekoa izan da.

Bide honi jarraitu ezkero, hurrengo legealdian Zero Zorreko egoerara helduko da Udala.

**Ordainketa-Politika:** Udalak ez du diruzaintza-arazorik eta 2014an zehar, 38/39 eguneko epean ordaintzen ibili da. Arrazoizko epea da, nahiz eta hau apur bat gehiago murriztea guda dogun, beti bere kudeaketa egokia eta fakturen ordainketaren kontrola errespetatuta.

**Legezko Parametroak Betetea:** Udalak lege-baldintza guztiak beteten ditu, bai aurrekontuaren egonkortasunari jagokonean eta bai gastuan bere; eta bide berari jarraitzen deutso indarrean dagoan legediak exijitzen dituan betebehar formaletan bere.



El Consistorio ha sabido capear la crisis económica y sus malos momentos, de caída de ingresos y aumento de necesidades, sobre todo en gasto social. Y hoy en día tenemos una administración saneada preparada, para lo que todos y todas, esperamos que sean futuros buenos años en lo económico.

### LIQUIDACIÓN:

Tras la reciente aprobación de la liquidación presupuestaria del ejercicio de 2014, nos encontramos con que el resultado ha sido, un año más ligeramente positivo. Esto permite mantener una cantidad razonable de remanente de tesorería. Es decir, dinero a utilizar en los próximos ejercicios, aunque una parte venga ya condicionada por obligaciones pre-existentes.

### DEUDA:

El gobierno municipal ha llevado a cabo, en esta legislatura, una política de no incurrir en nuevo endeudamiento y de reducción paulatina de la deuda existente, que, por otra parte, siempre se ha movido en cantidades más que razonables.

De continuar con esta senda se llegaría a la situación de Cero Deudas dentro de la próxima legislatura.




| | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| SALDO A 1-ENE | 5,701 | 4,686 | 3,169 | 1,923 | 1,523 |

### POLÍTICA DE PAGOS:

El ayuntamiento no tiene problema alguno de tesorería y ha estado pagando a lo largo de 2014 en un plazo medio de 38/39 días. Plazo razonable, que esperamos poder reducirlo aun ligeramente, siempre respetando la adecuada gestión y control del pago de las facturas, hasta la total conformidad previa al abono.

### CUMPLIMIENTO DE PARÁMETROS LEGALES:

El ayuntamiento cumple con todos los condicionamientos legales tanto de estabilidad presupuestaria, como de regla de gasto y cuantas obligaciones formales nos exige la legislación vigente.

# Acciones para fomentar el empleo entre 2011- 2015

## 2011-2015 tartean lana sustatzeko egindako lana

Mungialdeko Behargintzan enplegua sustatzeko egiten da lan; besteak beste, langabetuen lan egiteko aukerak

handitzeko, enpresen sorrera bultzatzeko, horreek merkatuan daukien lekua finkatu eta sendotzeko,

merkataritza sarean daukien lehiakortasuna handitzeko eta

daukien enplegu-sortzaile izaerari indarra emoteko.



El empleo es uno de los mayores retos de este Ayuntamiento que a través de Mungialdeko Behargintza trabaja para mejorar de la empleabilidad de las personas desempleadas, y apoyar la creación de empresa y su consolidación en el mercado así como favorecer un tejido empresarial competitivo que conlleve la generación de empleo y riqueza del municipio.

En el año 2014 1.118 usuarios y usuarias han acudido al servicio de orientación e intermediación laboral y en los últimos cuatro años ha habido un promedio anual de 95 agentes económicos que han colgado sus ofertas de empleo en el Behargintza. Han tramitado un total de 580 ofertas de trabajo en ese periodo, cerrándose en este periodo **494 contrataciones.**

El Behargintza y el Ayuntamiento de Mungia han efectuado 32**contrataciones a jornada completa** durante seis meses en los últimos cuatro ejercicios enmarcados dentro los **planes de empleo** municipales con el respaldo de Lanbide y **se han creado109 empresas** con el apoyo técnico de la entidad (28 empresas generadas en 2014)

Desde el 2011 se han impartido cursos de **formación especializada** (carretillas elevadoras, Operaciones básicas de hostelería, gestión empresarial, pescadería carnicería, atención al clientes, manipulación de alimentos, informática,…) en los que han participado más de **900 personas.** Además se han realizado **129 talleres** pre-laborales de búsqueda activa de empleo (entrevista de trabajo, dinámicas grupales,..). En el año 2015 se habrán impartido 7 acciones formativas (gestión administrativa en el proceso comercial, Atención al cliente, Aplicaciones informáticas de gestión, Pescadería y carnicería, operaciones básicas de cocina, trabajos verticales e información y gestión operativa de la compraventa internacional) en las que está previsto que participen alrededor de 80 personas.

A finales del 2012 se puso en marcha el **Plan de Empleo de Mungialdea** creándose la Mesa Técnica encargada de impulsar las acciones asociadas al mismo y el Observatorio Económico con el fin analizar la situación socioeconómica de la Comarca. En Mungia este año se han contratado 15 personas pertenecientes al colectivo con mayores dificultades de inserción laboral bajo el amparo de este Plan y con el apoyo de Lanbide.

Asimismo, fruto de un convenio con la DFB se ha puesto en marcha desde el Área de Juventud del Ayuntamiento y con la colaboración de Behargintza el **Plan de Empleo Joven** en el que 38 menores de 30 años han recibido una formación especializada y 31 de los mismos se encuentran realizando 300 horas de prácticas remuneradas en empresas de Mungialdea.

# Mungialdeko Behargintzak lanean jarraitzen dau eskualdeko enpresakaz daukan konpromesuari eutsita

Mungialdeko Behargintzaren helburua ekonomia eta enplegua sustatzeko aurrerapausoak eta hobekuntzak egitea da, eta xede hori lortzeko asmoz, akabuko urteotan enpresen beharrizanak identifikatu eta, beharrizan horreen arabera, ekintza ezbardinak antolatu ditu, beti bere Mungiagaz daukan konpromisoa azpimarratuta:



### LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Mungiako enpresei dagozan laguntzen barri emoteko, Mungialdeko Behargintzaren web-orrian diru-laguntzen zerrenda jarri da, eta aholku tekniko/administratiboa bere eskaintzen da bertan.

Birmoldaketa Industrialaren Sozietateak (SPRI-a, S.A.), Cheque más innova programaren 2012 eta 2013ko deialdietan, homologatu egin eban Mungialdeko Behargintza bitarteko agente-lanetarako.

Horrez gain, 2015ean Lanbidek sustatutako "Aukera" programan bere hartu dau parte eta programa horren bidez herriko enpresa bati laguntzea lortu da.

### INDUSTRIALDEETAN BURUTUTAKO JARDUERAK

Industrialdeetan dagoan seinalizazino falta kontuan izanda, industria-gunearen sarreran enpresa-direktorio bat jartea proposatzen jake enpresei. Direktorio-kartel horretan enpresen kokalekua agertzen da. Kartel horreek jartzearen kostuaren zatirik handiena bere gain hartuko dau Mungialdeko Behargintzak. Azken urteotan era horretako kartelak Trobika (2011), Atxuri (2012), Zabalondo (2013) eta Belakoko (2015) industrialdeetan jarri dira. Horrez ganera, Zabalondoko industrialdean, Behargintzak dinamizatutako enpresen alkar-lanaren ondorioz, internet sare optimo bat instalatzea lortu da.

### PRAKTIKAK ENPRESETAN BURUTZEKO EKIMENAK

Prestakuntza programa batzuen barruan (Enplegu Berdea edo Udal Gaztedi Mungia) eta prestakuntza-ikastaroetan, Mungialdeko Behargintza enpresakaz kontaktuan jarri da praktiketako ikasleak hartu daiezan. Programa horreetara gure udalerriko hogeita hamar bat enpresa inguru apuntatu dira.

### ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEKO EKINTZAK

Mungiako agente ekonomiko guztiak batzen dituan enpresa-gidaliburu bat egin da. Bertan, herriko enpresak sektoreetan banaturik eta mapa batean kokatuta agertzen dira (Udaletxeko eta Behargintzako web-orrian dago ikusgai).

Bilera ugari egin dira enpresek euren artean ezaguera partekatu daien. Lan-lerro horren barruan Mungialdeko Behargintzak gure udalean Industriaren Sustapen eta Birmoldaketarako Elkartearen (SPRI) Compite programa antolatu dau, enpresa txiki eta ertainen lehia hobetzeko helburuz sortu dana.

Azken urteotan programa horrek proposatutako lan-ildoak garatu dira: diagnostiko ezbardinak lortu dira eta besteak beste, merkaturatze, kalitate eta kudeaketaren ganeko gaiak landu dira.

Halaber, enpresek adierazitako gabeziei aurre egiteko programa ugari bere jarri da abian (e-kalitatea, e-ezagutu, e-berdea, e-energia…).

## Mungialdeko Behargintza sigue trabajando manteniendo su compromiso con las empresas de la comarca

La meta de Mungialdeko Behargintza es dar pasos adelante y realizar mejoras para promover la economía y el empleo. Con este fin, durante estos años, ha identificado las principales necesidades de las empresas y conforme a esto ha organizado diferentes actos y programas.

Subrayando el compromiso que siempre tiene con y ha mantenido con Mungia, Mungialdeko Behargintza, entre otras cosas, ha proporcionado información de ayudas y subvenciones, ha realizado acciones en los polígonos industriales, ha impulsado prácticas en empresas y también ha fomentado la colaboración inter-empresarial.

# Behargintzak martxan jarri ditu Mungialdeko enpresak sustatu eta enplegua sortzeko programak

## Nuevos programas para promover las empresas y crear puestos de trabajo en Mungialdea

Behargintza realiza año tras año un profundo proceso de identificación de las necesidades que tienen las empresas de Mungialdea. Después de largas reflexiones y muchas reuniones, el año pasado se puso en marcha el programa E-kalitatea. Este proporcionará una amplia preparación a las empresas del entorno para que puedan conseguir los certificados que necesitan, siempre con el objetivo de promover la economía y el empleo de Mungialdea.

Además, se han creado otros tres programas, E-ezagutu metala,E-berdea y E- energia para mejorar e impulsar el sector industrial de la zona.

Mungiako Behargintzak inguruko enpresek daukiezan beharrizanen identifikazio prozesu sakona egiten dau urtez-urte. Hausnarketa luze asko eta batzar ugari egin ostean, pasa dan urtean **E-kalitatea** programa abiatu zan. Programa horrek enpresek behar dabezan zigiluak lortzeko prestakuntza osoa eskainiko dau, helburua beti bere Mungialdeko ekonomia eta enplegua sustatzea dala.

Gaur egun merkatuak zabaltzeko eta enpresa bat kudeatzeko behar beharrezkoak dira hori ziurtatzen daben zigiluak eukitea. Hori dala eta, Mungian antolatu dan programa horren helburu nagusia enpresak prestatzea da. Horretara, programa bukatzen danerako, aukeratutako zigilua aterateko behar dan azterketari aurre egiteko prest egongo dira.

Hainbat zigilu dagoan arren, kurtso honetan eskainitakoak merkatuan dagozan ezagunenetarikoak dira. Alde batetik, ISO 9001 dago, hau da, kalitatearen kudeaketa sistema; horren bidez enpresako arlo guztiak aztertu eta prozesatzen dira. Bigarrenak, ISO 14001 ziurtagiriak, ingurumenaren kudeaketan dauka ardatz nagusia; azkenak, OHAS 18001 deitzen danak, osasunaren kudeaketa sistemak eta laneko segurtasuna bermatzen dauz.

Enpresa bakotxak programa honek eskaintzen dauzan tituluetatik lortu nahi dauena aukeratzen dau. Parte hartzen dabilzan sei enpresetatik bost kalidade arloko kudeaketa sistema lantzen dabilz, ISO 9001, eta seigarrena, ostera,segurtasun eta osasun arloa prestatzen dabil, hau da, OHSAS 18001 aterateko behar diran agiri guztiak lantzen. Enpresen interes eta aholkuak jaso eta **E-Kalitatea** programa egiteko egitarau bat prestatu genduan.

Enpresetako arduradunek 2014ko zemendian hasi eben euren prestakuntza. Lehen ikastaro hori urrutiko trebakuntza erara egin zan, sano gatxa zalako danak batera batzea, izan bere, batetik bakotxak bere ordutegia daukalako lanean eta, bestetik, ezin dalako beste barik enpresea arduradun barik itxi. Ezinbestekoa da enpresetan arlo honeetan ezagutza daukan jentea egotea. Izatez, nahiz eta zigilua aurton atera, gero barriztatu beharra dago eta, horretaz aparte, zigiluek adierazten dabezan prozedura guztiak bete behar dira enpresan eta horretarako arduradun bat izendatu behar da. Hori dala eta, programa osatzeko, formazino gehigarri bat eskaini da **Hobetuz**en bitartez.

Prestakuntza hori hartu ostean, enpresa horreei aukerea emon jake Mungialdeko langabetu gazte bat praktiketan hartzeko. Bekadun horreek martiaren 2an hasi dira enpresetan lanean, eta hiru hilabetean ibiliko dira bertan, zigilua lortzeko behar dan dokumentazinoa prestatzen. Gazte horreek, Mungialdeko gazte enplegu planaren barruan, Kalitate, Ingurugiro, Segurtasun eta Osasun arloetako 120 orduko ikastaro bat egin dabe. Dana dala, praktiketan dagozan bitartean bere sei tutoretza-saio jasoko dabez, euren duda guztiak argitzeko.

Horretaz aparte, enpresentzako arduradunek ere eurentzako tailerrak eukiko dabez, beste sei guztira, eta bertan proiektu honen egitaraua zehatuko da, denborak kontrolatuko dira eta egiten dabilzan lanaren jarraipen-ebaluaketa egingo da. Lehenengoa, programaren aurkezpenagaz batera, zezeilaren 25ean bertan egin zan. Agiri guztiak dagozanean, uda bueltan, barne auditoria bat egingo jake enpresei eta hori gainditzen dabenek ez dabe arazorik eukiko agiria lortzeko.

Honi lotuta, **Mungiako Behargintza**k beste programa batzuk kudeatu dauz ekonomia eta enplegua bultzatzeko. Beharrizanak aztertu ondoren, hiru honeek izan dira atera diran ikastaroak:

## E-EZAGUTU METALA

Mungiako agente ekonomikoek sortzen daben Balio erantsi gordinaren %40,10 (Eustat 2010) Industria sektoreak sortzen dau eta alor honetan kokatzen diran enpresarik gehienek metal arloan egiten dabe lan (guztira, 42 dira). Eurakaz egin dira batzarretan arazo moduan azpimarratu dabe ez dabela alkar ezagutzen eta, ondorioz, alkarren arteko harremanak handitzea egoki ikusi dabe, hornitzaile eta bezero barriak aurkitzeko.

Hori aldatzeko, Behargintzak **E-ezagutu** metala programa jarri eban martxan igaz, eta aurten bere ekin egingo jako. Honen helburua enpresa eta merkataritzaren harremanak egiteko eta sendotzeko gune bat sortzea eta euren arteko sinergiak bilatu eta bideratzea da. Lehen pausoa, Mungian metal arloan lan egiten daben enpresen katalogoa egitea izan da, bertan alor honetako enpresen datu orokorrak agertzen dira, baita euren jarduerea zein dan bere. Katalogo honen ganera, alkar hobeto ezagutzeko batzarrak prestatuko ditu Behargintzak aurton.

Mungialdeko Behargintza
Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa
Centro de Apoyo al Empleo y Desarrollo Local

HOBETUZ
Fundación Vasca para la Formación Profesional

Fundación Tripartita

## E-BERDEA

Enpresek, herriko edozein biztanlek legez, hondakinak sortzen dabez. Mungiarrok gure hondakinak kudeatzeko udala dogu bitarteko, baina enpresek euren kabuz egiten dabe.

Proiektu honen helburua Mungiako industria-gunetan dagozan enpresek sortzen dabezan hondakinak batera kudeatzeko baliabideak eskaintzea da, horretara zeregin horrek sortzen deutsiezan ditu-kosteak murriztu egin ahal izango ditue.

Lehenengo pausua Mungiako industria-guneetan dagozan enpresa guztiei gidaliburu bat banatzea izan da; horren bidez arau batzuk esakini jakez sortzen diran industria- eta enpresa-hondakinak prebenitzeko, murrizteko eta berrerabilteko. Datozan hilabeteetan beste pausu bat egingo da aurrera, hau da, proiektu honen barruan dagozan enpresak zehaztuko dira.

ISO 9001

ISO 14001

OHSAS 18001
CERTIFICATION EUROPE™

## E- ENERGIA

Behin Zabalondon egin dan internet proiektua bukatu ondoren, elektrizidadeari buruzko proiektua hasiko da. Ekintza horreek enpresentzako Know-How konprometitzen ez daben kosteen murrizketan oinarritzen dira. Hori egiteko, enpresa-talde bategaz egiten dau lan Behargintzak eta, horren ondorioz, hobekuntzak lortuko dira kontsumoan.

Aurtengo akabuko hilabeteetan ekingo jako ekintzei; lehenengo eta behin auditoria energetikoak egin gura dabezan enpresak aurkituko dira eta eurakaz talde bat sortuko da; eskala kostuak aprobetxatuta, merkeagoak izan daitezen. Horren ganera, iaz egin eben moduan, EVEk **Energia Aurrezkia eta Eraginkortasuna Programa** aterako baleu, horrek diruz lagunduta egongo litzateke.



# Babes Zibilerako Taldearentzat pertsonak dira lehentasuna

## Las personas son la prioridad para la Agrupación de Protección Civil

La Agrupación de Protección Civil de Mungia, que lleva presentado oficialmente un año y medio, no ha parado de formar a sus voluntarios con cursos sobre prevención e intervención del Gobierno Vasco. Este grupo ayuda a la ciudadanía en muchas ocasiones y es de destacar que, como en cualquier otra labor voluntaria, lo más importante son las personas. El Ayuntamiento agradece su labor y anima a los ciudadanos a unirse a este grupo escribiendo un e-mail a bzmungia@mungia.org o llamando al teléfono 656.703.900.



Igaro da jadanik urte eta erdi bat Mungiako Babes Zibilerako Boluntario Talde barriak udaletxeko Alkartasuna Aretoan bere aurkezpen ofiziala egin ebanetik. Bertan izan ziran urteotan taldearen partaide izan diran pertsonak; eta horrek gure herrian bolondres lanetan eskarmentu handiko lagunak daukaguzala erakutsi eban.

Taldea sortu zanean, euren lana San Juan eta San Pedroetako su-artifizialetan hastea pentsatu zan, baina zezeilean, tamalez, mungiar bat desagertu zan eta orduantxe jarri zan martxan herriko boluntarioen lana. Taldearen furgonetea erabili eben bilaketa eta koordinazinorako gune modura. Egun horreetako esperientziaren ostean, oihalezko toldo desmuntagarri bat erosi zan helburu horretarako, geroa San Juan eta San Pedroetan erabili dana.

Akabuko hileotan taldekideak euren buruak prestatzen ibili dira; hau da, hainbat ikastarotan hartu dabe parte (bide-segurtasuna, motozerren erabilera, txakurren erabilera bilaketetan, eta abar.). Danak dira Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituan ikastaroak, eta prestakuntza hori hartu ostean, talde honek eta berori osatzen daben boluntarioek hainbat lan egin dabez Mungian.

Uriolakaitik eta edurteakaitik arrisku laranja egoerea egon danean, lagundu egin deutsie herritarrei eta errepideak txukuntzen bere ibili dira. Horren ganera, zezeilean herrian egin dan Herri-krosean eta Duatloian bere ibilbidearen segurtasuna bermatu dabe eta kirolari eta ikusleak antolatzeko lanak bere burutu ditue.

Talde honen egiteko nagusia prebentzinoa da. Horretarako, herriko arrisku-frogetan hartzen dabe parte, baita Udaleko Babes Zibilerako Planen diseinu eta mantenuan bere. Ganera, arrisku mota desbardinek eragiten dabezan kolektiboakaz egiten dabe lan informazino eta zabalkunde kanpainetan, eta prebentzinorako dispositiboetan bere bai.

Horregaz batera, esku-hartze lanak egiteko bere prestazen da Babes Zibilerako taldea: larrialdietarako zerbitzuei laguntza emonten deutse, egoera horreetan sortzen diran oinarrizko beharrizanak daukiezan pertsonei lagunduta (arazoa sortu dan lekutik kanpora eroan, ostatu eta beharrezko hornigaiak emon...). Eta borondatezko beste edozein beharretan gertatzen dan moduan, pertsonak eurak dira lehentasuna.

Hori dala eta, eskerrak emon behar jakez boluntarioei euren lanagaitik eta animatu egiten doguz mungiarrak talde honetan parte hartu daien. Ekintza politak eta era askotako esperientziak bizi ahal dira bertako partaide izanda. Horretarako, Mungiako Babes Zibileko boluntarioa izan gura badozu, idatzi bzmungia@mungia.org helbide elektronikora, edo deitu 656.703.900 telefonora.

# Mungialdeko berbakerea



Orrialde honen helburua gure ondarearen parte bat batu eta zabaltzea da, hain zuzen bere, Mungialdeko berbak. Gaur egun letra idatziaren gizartean bizi garanez, emoten dau idazten ez danak ez daukala izaterik; halanda bere, gure eskualdeko berbeta honetan badira hainbat eta hainbat hitz, normalean idazten ez doguzan arren, berbaz egunero-egunero erabilten doguzanak. Berba horreetariko batzuk, Mungiarra aldizkarian batzea da gure asmoa.

Zure ekarpenak bialdu gura badeuskuzuz, idatzi helbide honetara: **euskera@mungia.org**

| ZELAN IDATZI? | ZELAN ESATEN DOGU? | ESANGUREA |
|---|---|---|
| Ahuspez | EUSPES | Ahoz behera. "Ahuspez lo egiteko ohitura dauka Mikelek". |
| BEILEGI(A) | BELLEGIE, BALLEGIE | Horia. Beilegizta=beilegi antzekoa. |
| Binke! | BINKE! | Inork esan dauenari arrazoia emoteko esakunea. Bai horixe! |
| Dandarrez | DANDARRES | Narras, arrastaka, tatarrez. |
| Ganor(e)a | GANORA | Sustantzia, trentina. Ganorabakoa=sustantziarik ez daukana. |
| Nahia | NEIE | Zenbatgura; gura dan beste. Nahia egin/eragin: Gogaitu: "Nahia eginda nago / naukazu", "Nahia eragin deust". |
| Olgau | OLGEU, OLGAU | Jolastu. |
| Sats eginda | SATS EGINDA | Sano nekatuta, apurtuta. |

# Euskararen erabilera sustatzen herrian

Mungia herri euskalduna dan heinean, gure inguruetan hizkuntza honen erabilera zabaltzeko asmoa daukagu. Halanda bere, kaletik entzun leiteken moduan, honen erabilera ez dago gura geunken bezain hedatua. Hori dala eta, Udalak ekimen asko egiten ditu euskera sustatzeko. Beharrezkoa dan bultzakada horretarako, urtarrileko Osoko Bilkuran, talde guztien aldeko botoagaz, datozen urteetarako *Euskera Sustatzeko Ekintza Plana 2015-2017 (ESEP)* onartu eban Udalbatzak.

Orain dala 12 urte ekin eutsan gure herriak euskeraren erabilera indartzeko plan integralak garatzeari, orduan *Biziberritze Plana* esaten jaken, eta harrezkero, proiektu honek indarguneak eta ahuleziak izan baditu bere, bide luzea eta sendoa egin dau. Euskerak eta gure gizarteak akabuko hamarkadetan bizi izan daben eta bizi daben astinduak sustraitik aldatu ditu gure eguneroko ohiturak, eta tartean, hizkuntza ohiturak bere bai. Hori dala-eta, orain arteko *Biziberritze Planaren* ganeko hausnarketa egin ostean, *Euskera Sustatzeko Plana* izango dogu datozen urteotan euskeraren erabilera indartzeko tresna barria. Aurreko planak bezala, proiektu honek hiru lan-esparru nagusi izango ditu: transmisinoa, erabilera eta elikadura.

Transmisioari jagokonez, orain arteko bideari eutsiko jako ikastetxeakazko alkarlana indartzen, eta ume eta familientzako kultur eskaintza sendotzen. Arlo honen helburuak euskaldun pasiboak aktibatzea, euskalduntze-alfabetatze arloan dagoan eskaintza hobetzea eta familia transmisinoan izan dan beherakadari buelta emoteko tresnak sortzea dira.




Erabilerari jagokonean, lehendik egindako lanari ekingo jako; hau da, kultur eta kirol taldeen jarduna euskalduntzeko tresnak eskaintzen jarraituko dogu, adin guztietako herritarrei eskaintza egokia emonez eta AUEren zerbitzuen euskarazko funtzionamendua bermatuz. Horren ganera, kirol alkarteek euskerea euren egunerokoan integratzea, 10 urtetik 16ra bitarteko gazteentzako aisialdiko eskaintza handitzea eta Mungiako merkataritza eta ostalaritzan euskeraren erabilera handitzea dira gure beste jomuga batzuk.

Hirugarren lan-esparrua elikadura da, eta horri jagokonez, aurreko urteetako bideari eutsiz, ondarea zabaltzen jarraitzea da xedea, hau da, egindako grabazino etnografikoak gizarteratzen segitzea, eta eskualdeko euskerari eta euskalkiari daukien balioa emoteko ekimenak bultzatzea. Honetaz aparte, komunikabideak formatu barrietara egokitzea (edo barriren bat sortzea) eta komunikabideetako hizkuntza kalitatea bermatzeko bideak sortzea dira gure beste helburu batzuk.

Plan hau garatzeko eta gauzatzeko, ezinbestekoa izango da Udalaren eta herritarren arteko alkarlana, urtean zehar batzordeen eta ostantzeko hartu-emonen bidez estutzen eta lantzen dana.

## Promoviendo el uso del euskera en Mungia

El Ayuntamiento de Mungia sigue fomentando el uso del euskera entre sus ciudadanos. Para ello, ha aprobado el Euskera Sustatzeko Ekintza Plana 2015-2017 (ESEP). Este proyecto recoge y mejora las iniciativas que se vienen llevando a cabo desde hace doce años desde el Consistorio. Además, incorpora nuevos objetivos para el impulso del euskera en diferentes ámbitos de la vida, como los deportes o los medios de comunicación.

Para más información llamar al 94 674 90 89 o contactar por e-mailen el correo euskera@mungia.org.

# Mungiako Ahozko Ondarea Jagoten eta Zabaltzen

## Cuidando y Difundiendo el Patrimonio Oral de Mungia

Siguiendo con la línea establecida por el Consistorio, este ha realizado un convenio con el Centro Educativo de Labayru con el cual han publicado el proyecto “Mungian Zaharrak Barri”, unas unidades didácticas que recogen la cultura y el modo de vida de nuestro pueblo.

Este material se ha hecho en dos soportes, para adaptarlos fácilmente y cómodamente a todos: el material al completo está disponible en la web www.mungianzaharrakbarri.com y en los libros podemos encontrar una parte del material. Entrando en la página web, cualquiera puede utilizar las unidades didácticas de forma totalmente gratuita. Los libros, se distribuirán a las escuelas y si alguien más quiere adquirirlos, estos estarán a la venta por 5 euros en Agirre Jauregia.

Udalak, herriaren kultur ondarea batzeko eta zabaltzeko asmoz, hainbat lan gauzatu ditu azken urteotan Labayru ikastegiaren laguntzagaz. Behar horren adibide nagusienetako bat dira pasa dan hilean aurkeztu ziran “Mungian zaharrak barri” izeneko unitate didaktikoak.

0 urtetik 8ra bitarteko umeentzako egin diran unidade horreen aurkezpena Alkartasuna aretoan egin zan, eta bertan materiala erakusteaz ganera, material horren erabileraren ganeko saio praktiko bat bere eskaini zan. Umeei zuzendutako unidade didaktiko horreetan, besteak beste, ume-kantak, esakerak, ipuinak eta ohiturak aurkitu ahal doguz, hau da, gure herriaren kulturaren eta bizimoduaren ganeko informazio zabala. Material didaktikoa izateaz aparte, ludikoa bere bada, guraso zein irakasleentzat sano aproposa eta baliagarria, eskolako curriculumagaz bat datorrena ganera.

Unitateak testuz, irudiz, bideoz eta audioz osatuta dagoz. Informazinoa gaika antolatuta dago, eta multzo handi bitan banatuta: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. “Mungian zaharrak barri” izeneko materiala egiteko, Mungiako euskal ondare etnografikoa eta linguistikoa batu, sailkatu eta landu dira. Azken baten, helburu nagusia bizimodu tradizionala eta herri jakituria modu barritu eta erakargarrian zabaltzea eta gizarteratzea izan da.

Helburu hori gogoan dala argitaratu dauz Udalak unidade didaktiko honeek. Umeek herriko kultur tradizinoa guraso, irakasle zein ingurukoen ahotik jaso eta gozatu daien. Uste baino ondare zabalagoa dago Mungian. Aurkezpen ekitaldian egon ziranetako batzuentzat material barria izan zan, beste askorentzat, ostera, oso ezaguna; eta bertan egoan edadeko jenteari hainbat eta hainbat berba, ezagupen eta oroitzapen ekarri eutsozan gogora.

Material hau bi euskarritan egin da, danok erraz eta eroso moldatzeko: batetik, “www. mungianzaharrakbarri.com” web-gunea, bertan topatuko dozu material osoa (Udalaren web-orrian dago eskegita); eta bestetik, liburutxuak, materialaren aukeraketa bat. Web-orrian sartuta, edonork erabili lei unidade osoa doan. Liburutxuak, barriz, eskoleei banatuko jakez eta beste inork erosi gura izan ezkero, Agirre Jauregian egongo dira salgai 5 eurotan.




Orain dala hamarkada batzuk gure arbasoak, bai aitita-amamek eta baita gurasoek eta ingurukoek bere, ahoz aho transmititzen ebezan euskal tradizinoko ezagupen guzti horreek, baina gaur egun gatxagoa da kultur-ate horri eustea. Halanda bere, bertoko izakerea eta nortasuna gorde gura badira, ezinbestekoa da ume-umetan jasoten dan hori jagotea eta aurrerantzean bere ahoz aho zabaltzea.

# Bat, bi, hiru…Korrika!

## Bat, bi, hiru…Korrika!

El 24 de marzo Mungia acogió, una vez más, la Korrika. Esta carrera a favor del euskera entró sobre las 10:00 de la mañana por Bermeo Bidea y salió a las 10:45 hacia Gatika. Cada dos años, nuestra localidad se vuelca con un gran festejo ya que todos los agentes sociales y culturales del pueblo participan en este acto. Los centros de enseñanza del también compraron su kilómetro y, algunos corriendo y otros más despacito, todos consiguieron llegar al meta, donde le pasaron el testigo a otra persona.

Pero antes de la **Korrika**, en Mungia se celebró la **Korrika Kulturala** que organizó un espectáculo de payasos, donde a través de la música y el teatro se trabajó el euskera, y también un acto sobre el papel, poco reconocido, de las mujeres en

Aurten bere, aurreko edizinoetan bezala, **Korrika** gure herritik igaro da. Euskeraren aldeko lasterketa hau martiaren 24an pasatu zan Mungiatik. Goizeko 10:00ak inguruan sartu zan herrira Bermeo bidetik eta 10:45 bueltan urten eban Gatikarantza. Urte birik behin egiten dan lasterketa hau herritik pasatu dan guztietan lez, martiaren 24an bere euskararen aldeko jaialdi handia egin zan udalerrian, izan bere, ekintza honetan Mungiako agente sozial eta kultural guztiek hartu eben parte eta herri osoan giro alai eta ederra sortu zan. Aurreko edizinoetan lez, herriko ikastetxeek kilometro bana erosi eben eta bertan lasterketan ibili ziran bai umeak eta baita gaztetxoak bere. Bakotxa bere erritmoan, batzuk arinago eta beste batzuk motelago, baina danek lortu eben euren helburua, hau da, lekukoa beste pertsona bati emotea, eskuz esku Bilboraino heltzeko.

Baina Korrika bera Mungiatik pasatu aurretik, horrekin lotuta dagoen **Korrika Kulturalaz** gozatzeko aukerea bere izan dogu. Aurten, Korrika Kulturak ekintza bi ekarri deuskuz herrira:




**Martiaren 1ean, Puski, Txurruski eta Mariski pailazoak** izan genduzan ikusgai eguerdiko ordu batetan Andra Mari plazan. Ikuskizun honek, antzerkia eta musika batzen ditu parekidetasuna eta elkartasuna bezalako baloreak transmititzeko. Tresna pedagogiko horreek aprobetxatuta, euskera lantzen dabe musikaz beterik dagoen antzerki-lanaren bidez.

**Martiaren 7an**, arratsaldeko zazpietan, **"Bertsolaritzaren sekretuak: ixilduriko emakumeen historia"** deituriko ikuskizuna eskaini zan Olalde aretoan, hurrengo egunean emakumeen nazioarteko eguna zala aprobetxatuta. Izan bere, ikuskizun horrek, mendeetan zehar historiak sekretuan gorde dituan emakume bertsolarien barri emoten dau. Emakume horreen lana gaur egunera iristeko zailtasun asko izan badira bere (hareen bertsoak erre, gorde, isildu… egin dira eta), batzuk berreskuratzea lortu da. Emakume askoren ezagutza galdu dogu bidean eta ikuskizun honen egileek isilduriko emakume hareek bizi izandako egoerak argitara ekarri dabez, denboran eta espazioan atzera eta aurrera, narrazioz, bertsoz eta musikaz lagunduta.

# Euskal kultura sustatzen jarraitzen dogu Mungian, liburu azoka eta Kortazarren erakusketagaz

Mungiako Udalak euskereagaz eta kultureagaz daukan konpromisoari eusten jarraitzen dau. Horren adibide dogu zezeilaren 20tik martiaren 1era arte Mungiako Matxin enparantzan egin dan Liburu eta Disko Azoka. Kultura arloari eman gura jakon bultzada horren barruan azpimarratzekoa da urtero-urtero euskal nobedade eta diskagintzak azoka honetan izaten daben protagonismoa. Aurten produktu horreek %10eko beherapena izan dabe, lehentasunezkotzat jo da- eta euskerazko kultur produktuak guztion eskura egotea.

Aurtengo azokaren gaiari lotuta, Matxin enparantzara etorri diran literaturzaleek "Euskal literatura aldizkarietan" izeneko erakusketa ikusteko aukerea izan dabe feriaren stand batean. Mungiako Udalak azokan izan dauen gunean azken urteetan argitaratutako liburuak eta diskak jarri ditu salgai, herritarrek material hori eskura izan daien.

Liburu eta Disko Azokaren barnean, literaturari eskainitako txokoa bere egon da. Udaleko Alkartasuna aretoan ekintza ezbardinak antolatu dira mungiarrok gure hizkuntza eta kultura batzen dabezan ekintzez gozatu ahal izateko.

Ekintza horreen artean azpimarratu beharrekoa da zezeilaren 26an euskal literaturaren ganean egin zan *"Euskal Literatura: Atzo, Gaur… Bihar"* deituriko mahai-inguru irekia. Bertan, euskal literaturaren jatorria, sorrera eta bilakaera aztertu ziran eta herritarrek sano harrera ona eskaini eutseen euskal kulturan erreferente diran Kirmen Uribe idazleak eta Jon Kortazar idazle eta irakasleak esandakoei. Humanitateen ikasgai honen bilakaera laburbildu ostean, gaur egun bizi dauen egoera aztertu eta azkenik, etorkizunean zer izango dan eztabaidatu zan aditu eta herritarron artean.



Horri lotuta, euskal filologian doktore eta Euskal Herriko Unibertsitateko euskal literaturako katedraduna dan Jon Kortazarren omenez antolatuko erakusketa bat egon da ikusgai Udaletxearen arkupeetako aretoan Liburu Azoka inauguratu zan egunetik amaitu dan arte. Izan bere, Kortazarren *XX. Mendeko Euskal Literatura* liburuaren 25. urteurrena ospatzen da aurton eta gure herriak omenaldi bat egin gura izan deutsa idazle honen lanari. Mende laurden bete dauen lan horretan literaturgintzaren eremu guztiak aztertu dauz Kortazarrek, euskal egileen eta haien lanen sailkapen kronologiko bat eginez eta hareetariko bakotxa jagokon testuinguru kultural eta historikoan ezarriz. Berak idatzitako liburuak, kritikak, Lauaxeta poetaren inguruan egindako ikerketak, argazkiak eta oroigarriak bildu ditu besteak beste erakusketa horrek, baita jasotako sari garrantzitsuenak bere, hau da, Rosalía de Castro Saria eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Lauaxeta Saria.

## En Mungia seguimos promoviendo la cultura vasca con la Feria del Libro y la exposición de Kortazar

La Plaza Matxin acogió la Feria de Libros y Discos, donde las novedades vascas y los discos tuvieron descuento, ya que para el Ayuntamiento era una prioridad establecer precios para todos los bolsillos.

Además, se reservó un espacio para la literatura y se llevaron a cabo diversas actividades, de entre las que destacó la mesa redonda sobre la evolución de la literatura vasca. Los encargados de llevar el acto fueron el escritor Kirmen Uribe y el escritor y profesor Jon Kortazar.

A este último, se le homenajeó, con motivo del 25 aniversario de uno de sus publicaciones más famosas, a través de una exposición que recogía su trayectoria profesional a través de fotos, publicaciones, críticas, premios y demás artículos.

# Mungirock areto berria inauguratu da




Joan den urtarrilaren 9an "Mungirock" Udal Areto berria estreinatu zan. Mungirock Aretoa, herrian musika taldea daukientzat Udalak sortu dauen espazio barria da. Ferialekuan dagoan pabiloi baten kokatu da musikariek euren espazio pribatua izan daien. Bertan, insonorizatuta dagozan entsaioetarako gela bi aurkitu geinkez, baita formatu txikian kontzertuak emoteko areto bat bere. Horren ganera, Mungirockek biltegi txiker bat, komunak eta musika taldeak egoteko espazioak bere baditu. Aretoan sartzeko giltza elektronikoa beharko da, talde bakotxak bere entsaio-orduak dituala bermatu ahal izateko. Ganera, gelak alarmaz hornituta dagoz.

Legardako obren ondorioz lehengo lokalak kendu beharra egon zan, eta **Mungiako Udalak** barri bat sortu dau, betiere, herrialdeko musika taldeentzako egoera hobetuz.

Inaugurazino ekitaldiaren egunean "ate irekiak" izeneko jardunaldia egin zan, herritarrei lokala eta instalazino barriak erakusteko. Ohorezko aurreskua dantzatu zan esparru barri honi omenaldia egiteko, eta ostean, Mungiako ikur bilakatu diran musikariek zuzenean jo eben bertan. Inaugurazinora hurbildu ziran herritar guztiek Rafa Rueda abeslaria eta Belako talde arrakastatsua entzuteko aukera izan eben.

Azkenik, luntxa egin zan eta horrexek emon eutson amaiera **Azken Zarata Rock Alkarteak** Mungiako Udalagaz batera antolatutako ekitaldi honi. Asko izan ziran bertaratu ziranak, bai gazteak eta bai nagusiak, eta ekitaldiaz itzel gozatu eben guztiek

Zezeilean hasi ziran herriko musika taldeak lokal honeek erabilten. Guztira, 14 taldek eman dabe izena areto barrian entsaiatzeko. Udala berriz, lokalen erabileraren araudia hobetzen dabil, guztion artean lokalen erabilera ahalik eta eraginkorrena izan daiten.

## Inauguración de la nueva sala Mungirock

El pasado enero se estrenó el nuevo local municipal Mungirock. Este espacio situado en el ferial de Mungia, cuenta con dos salas de ensayo insonorizadas y una sala para dar conciertos y está a disposición de los grupos de música del municipio. El Ayuntamiento ha mejorado los equipamientos tras el derribo del anterior debido a las obras de Legarda, pensando siempre en mejorar la situación para los grupos de música. Este nuevo recinto ya cuenta con una lista de 14 grupos inscritos, de los cuales los que cumplen la normativa vigente y actualmente en proceso de mejora, ya han comenzado a ensayar en él.

# 2015 urterako kirol taldeentzako diru-laguntzak




Urtero bezala, **Mungiako Udalak**, herriko kirol taldeakaz daukan alkartasunari eutsita, kirol taldeentzako diru-laguntza deialdia argitaratu dau. Urtarrilaren azken astean egin zan batzarrera herriko kirol talde guztiak konbokatu ziran. Bertan, diru-laguntza honeek eskatzeko epeak, aurkeztu beharreko dokumentuak eta beharrezkoak diran beste tramite batzuk azaldu ziran.

Alkarteek zezeilearen 6tik 23ra bitarteko epea izan dabe laguntza ekonomiko honeez gozatzeko beharrezkoa dan dokumentazinoa aurkezteko. Eskari horreek guztiak esku artean dirala, hilabete honetan, kirol teknikariak txosten bat prestatzen dabilz. Dirua kirol taldeei maiatzean zehar banatuko jake, ezarritako epeei jarraituta.

Aurten diru-laguntza deialdira aurkeztu diran kirol taldeak honeexek izan dira:

- Mungia Butroi Eskubaloi Taldea.
- Valentin Uriona Txirrindulari Alkartea.
- Mungia Rugby Taldea.
- Mungia Igeriketa Taldea.
- Ehiza, Tiro eta Arrantza Alkartea.
- Andui Mendigoizale Taldea.
- Club Deportivo Boxmun.
- Mungia Saskibaloi Taldea.
- Bentades Ikastetxea K.T.
- Laukariz Eskola K.T.
- IES Mungia K.T.
- Legarda Eskola K.T.
- Larramendi Ikastola K.T.

Bestalde, aipatzekoa da orain dala gitxira arte saskibaloi arloan hiru klub egozala herrian, baina taldeon arteko lan, esfortzu eta ekimenari esker, batu eta talde bakarra osatu dabela: **Mungia Saskibaloi Taldea**. Beraz, aurrerantzean talde bakarra izango da bai kirol arloan, baita gestinoan bere. Bat egite horrek, euren kirol-jarduera errazteaz ganera, saskibaloiari berari bere bultzada handia emongo deutso.

Udalari jagokonez, oraingoan bere aurreko urteetan emondako diru-laguntza kopuru berari eutsi deutso, hau da, **64.000**€ Kirol Klubentzat eta **7.000**€ Eskoletako Kirol Taldeentzat. Diru horren banaketa orain dala urte bi taldeakaz eurekaz adostutako arauei jarraituta egingo da.

## Las subvenciones del 2015 para los grupos deportivos

Como todos los años, el Ayuntamiento de Mungia ha mantenido el apoyo que muestra a los clubs deportivos y grupos de deporte escolar del municipio, y para ello ha comenzado con los trámites para que estos reciban las subvenciones deportivas del año 2015.

Los grupos deportivos ya han presentado la documentación y será a partir de mayo cuando comiencen a recibir dicha ayudar económica siguiendo con los plazos establecidos. El Consistorio ha vuelto a otorgar las mismas cantidades económicas de años anteriores, es decir, 64.000 € para los Clubes y 7.000 € para los grupos de deporte escolar.

# Kirol Zerbitzuak eta instalazinoak hobetzeko lanak aurrera doaz



Aurreko Mungiarran azaldu zan moduan, eta kiroletako azpiegiturak hobetzeko proposamenak aurkezteko herritarrei emon jaken epea amaitu ostean, obrei ekiteko tramiteak bideatzen hasi da Udala. Herritarrek aurkeztutako 32 iradokizunak jaso eta aztertutakoan, baloratu egin da zein ekintza burutu, dagozan baliabide ekonomiko eta kalidadeko zerbitzu bat eskaintzearen arteko oreka bilatuta. Ganera, egin beharreko ostantzeko konponketak edo egokitzapenak bere hartu dira kontuan. Horrenbestez, honeexek dira egingo diran lanak:

**Larretako frontoien estalki zaharra kendu eta barria imini:** Yofra enpresak (bera izanda da- eta adjudikazinoa lortu dauena 221.487,60€tan, BEZ barik) martiaren 9an ekin eutsan obrak egiteari. Lehenengo fasea estalki zaharra kentzea izan zan. Behin hori amaituta, estalki barriaren oinarriak (zurezkoak eta plaka zeharrargietakoak) jarriko dira eta geroago ekingo jako muntatzeari.




Enpresak aurreikusitakoaren arabera, obrak maiatzaren amaierako bukatuko dira. Ganera, barruko albo-harmaila kenduko da, erabiltzaileek eurek halan eskatu dabelako, eta argiztapen-sistema barria jarriko da. Lan honen kostuaren %60 Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari eskatuko jako Udalagaz sinatuko dauen hitzarmenaren barruan. Horren trukean, Udalak pelotalekuaren alde irekia Hezkuntza Sailaren esku itxiko dau, bertan gimnasio bat egin daien, eskola-ordutegian San Pedro ikastetxeak erabiliko dauena baina ordutegi horretatik kanpo erabilera publikoa izango dauena. Frontoiaren alde estaliak, orain arteko moduan, Udalarena izaten jarraituko dau.

**Udal-Kiroldegian egingo diran aldaketak**: Bai erabiltzaileen eta bai kirol teknikoen etengabeko eskariari erantzunez, obra honeen bidez gimnasioaren gaur egungo azalera ia bikoiztu egingo da. Lehengo fasean gimnasioa handitzeari ekingo jako, lehengo solairuko komunak lekuz aldatu eta handitu egingo dira, eta balioaniztuneko harmailetara doan sarreran plataforma bat egingo da ikuspena hobetzeko eta errazago sartu ahal izateko. Lan horreek egiteko aurreikusi dan zenbatekoa 161.215,23€koa (BEZ barik) da. Orain Kontratazino-Mahaia obren adjudikazinorako tramiteak bideratzen dabil, eta obrak apirilean hasiko dirala aurreikusi da. Bigarren fasean, zahartuta gelditu dan squash-pistetako bat birmoldatu egingo da eta bertan zuzendaritza-bulego bat eta hainbat batzar eta heziketa gela egingo dira, kiroletako klubek egindako eskariari erantzunez.

**Kiroldegiaren aurrean dagoan orubea txukundu:** Eraikinaren aurrean, kanpoko aldean dagoan lurzorua bardindu eta egokitu egingo da. Behin hori eginda, padel-pistak instalatuko dira Legardako estalpe zaharraren azpian. Lursail horren ganerako zatian tenis-pista bat, saskibaloiko beste bat eta areto-futboleko pistak margotuko dira. Horretarako aurreikusi dan zenbatekoa 276.272,91€koa (BEZ

barik) da, eta lanak apirilean hastea aurreikusi dabe.

**Skatepark barria:** Aurten ekingo jake Larreta inguru horretan egingo dan skatepark barriaren eraikuntza-lanei. Pista barri horrek gaur egun dagoanaren luze-zabalera bera izango dau (800 m2). Inbertsino hau beharrezkotzat joten da, batetik, lehengo Skatepark-aren egoera nahiko eskasa dalako, eta bestetik, lursail hori aurrerantzean San Pedro ikastetxearen esku geldituko dalako. Mungiako Udala Malen Skate Klubagaz dabil adosten skatepark barri horren ezaugarriak eta diseinua, pista hori adin guztietako mungiarrek skateaz gozatzeko lekua bihurtu daiten.



## Continúan las mejoras en las nuevas instalaciones y en los servicios deportivos

Tal y como se adelantaba en el anterior Mungiarra, tras concluir el plazo para que los y las mungiarras que lo desearan presentaran sus sugerencias para la mejora de infraestructuras deportivas, se han iniciado los trámites para comenzar con las obras. Recogidas las 32 sugerencias, se ha sopesado qué acciones llevar a cabo buscando el equilibrio entre los recursos económicos disponibles y una oferta de servicios de calidad. Además, se han tenido en cuenta reparaciones o adecuaciones que era necesario realizar:

Sustitución de la cubierta de los Frontones de Larreta: La obra, adjudicada a la empresa Yofra por un importe de 221.487,60€ (sin IVA), se inició el 9 de marzo desmontando la cubierta. Se colocarán las bases de la nueva (de madera y placas translúcidas) y posteriormente se procederá al montaje de la misma, concluyendo el trabajo para finales de mayo, según la empresa. Además, se eliminará la grada lateral del interior, a petición de los usuarios, y se instalará un nuevo sistema de iluminación. El 60% del coste de la obra sería repercutible al Departamento de Educación del Gobierno Vasco, en virtud de un convenio a firmar entre la institución y el Ayuntamiento, mediante el cual, este último cedería la parte del frontón abierto actualmente a dicho departamento donde éste habilitará un gimnasio para uso de San Pedro Ikastetxea en horario escolar, y de uso público fuera de este. El frontón actualmente cubierto seguiría siendo municipal.

Modificaciones en el Polideportivo Municipal: El objetivo es ampliar el gimnasio prácticamente al doble de la superficie actual, siendo una demanda constante de los usuarios, así como del personal técnico deportivo. En una primera fase se procederá a la ampliación del propio gimnasio, se reubicarán y ampliarán los baños de la primera planta, y se creará una plataforma que mejore la visibilidad y accesibilidad al graderío de la pista polivalente. El importe estimado para esta obra es de 161.215,23€ (sin IVA). En este momento la Mesa de Contratación sigue su curso para la adjudicación de los trabajos, que se estima den comienzo en el mes de abril. La segunda fase se centrará en reconvertir una de las pistas de squash en desuso, en un despacho de dirección y en varias salas de reuniones y formación para los clubs deportivos, que ellos mismos pedían.

Adecentamiento del solar exterior frente al Polideportivo: Se nivelará y acondicionará el suelo de toda la parte exterior frente al edificio. Una vez realizado, se procederá a instalar varias pistas de padel bajo la vieja cubierta de Legarda, mientras que en el resto del solar se pintarán una pista de tenis, otra de baloncesto y una de fútbol sala. El importe estimado para ello es de 276.272,91€ (sin IVA), y se calcula que los trabajos inicien en abril.

Nuevo Skatepark: Este año, se acometerá la construcción de un nuevo skatepark que se ubicará en la zona de Larreta, ocupando un espacio similar al actual de en torno a 800 m2. El deterioro del actual skatepark, así como la utilización del suelo donde se ubica actualmente, que se destinará a San Pedro Ikastetxea, hace necesaria esta inversión. El diseño y necesidades del nuevo skatepark se están consensuando entre Malen Skate Kluba y el Ayuntamiento de Mungia, con el fin de conseguir un lugar donde mungiarras de todas las edades puedan disfrutar patinando.

# Rakel Mateo, más cerca de su sueño Olímpico

La atleta mungiarra Rakel Mateo, es una luchadora que pese a sufrir una discapacidad en su pierna izquierda, ha alcanzado, gracias a su esfuerzo y a su capacidad de superación, la élite del deporte adaptado. Mateo, que se ha proclamado Campeona del Mundo de Paraduatlón y Campeona de España de Paratriatlón en 2014, se encuentra en plena forma y totalmente concentrada en lograr su objetivo: participar en los Juegos Paralímpicos de Río de Janeiro en septiembre de 2016 en la categoría de Paratriatlón.




Para ello, Rakel está entrenando intensamente y durante todo este año deberá competir en diversas pruebas puntuables del ITU World Paratriathlon. Rakel debe acudir a estos certámenes que se realizan por todo el mundo para sumar puntos y poder así mantener su quinta posición en el *ranking* mundial. Hasta ahora, la mungiarra ha participado en los dos primeros Paratriatlones que han tenido lugar en Sudáfrica y Australia, logrando la medalla de oro y plata respectivamente.

El coste económico que supone participar en estas competiciones es muy elevado (billetes de avión, estancias en hoteles, inscripciones, material deportivo…), por lo que varias instituciones y entidades como Fundación Saiatu, Ayuntamiento de Mungia, Diputación Foral de Bizkaia o Athletic eta Kitto Kultura Elkartea, se han implicado para ayudar a Rakel en su **Objetivo Río 2016.**

Esta última entidad creó en 2014 un proyecto solidario llamado *"Athletic gu gara"*, que se ha materializado en un disco con **15 canciones dedicadas al Athletic Club.** Realizado por más de 240 personas (músicos, escritores, bertsolaris, periodistas, actores) de forma desinteresada, los beneficios irán destinados a la Fundación Saiatu - dedicada a apoyar y fomentar el deporte dentro del colectivo de personas con discapacidad- a la que Rakel pertenece.

El disco está a la venta en diversos puntos de Bizkaia, así como en **las Ferias del Libro** que se celebran en los distintos municipios, a un precio de 15 euros, de los cuales **5 se destinarán a ayudar a Rakel** a lograr su sueño.

Además, quien quiera y pueda colaborar económicamente con esta iniciativa, puede hacerlo a través del siguiente número de cuenta: Fundación Saiatu: 2095 0113 10 9105898866 (concepto: Rakel Mateo).

## Rakel Mateo, bere amets Olinpikotik gero eta parajeago

Nahiz eta bere ezkerreko hankan minusbaliotasuna jasan, Rakel Mateo mungiarra egokitutako kiroleko goreneko mailara heldu da. Munduko Paraduatloiko eta Espainiako Paratriatloiko Txapelduna dan atleta honek helburu bakarra dauka: 2016an Rio de Janeiron antolatuko diran Joko Paralinpikoetan parte hartzea.

Horretarako, proba puntuagarri desbardinetan lehiatuko da, *ranking* mundialean daukan bosgarren postuan jarraitzeko. Horrek, jakina, kostu ekonomikoa handia dauka eta horri aurre egiteko erakunde asko agertu dira Rakeli laguntzeko prest.

*Athletic eta Kitto Kultura Elkarteak "Athletic gu gara"* izeneko disko solidarioa atera dau eta Bizkaiko leku desbardinetan eta Liburu Azoketan dago salgai. 15 euro balio dauz eta horreetatik 5 euro Rakeli emongo jakoz. Baina horrez ganera, gura dauen edonork dauka laguntzeko aukerea; horretarako dago hain zuzen bere ondoko kontu korrontea: Saiatu Fundazioa: 2095 0113 10 9105898866 (kontzeptua: Rakel Mateo).

**ARGITARATZAILEA:**
MUNGIAKO UDALA: Trobika, 1 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 16 / harrera@mungia.org / www.mungia.org
**ALE KOPURUA:** 7.000
**LEGE GORDAILUA:** BI-2224/2012
MUNGIA UDALA AYUNTAMIENTO